

INFERNUKO ERROTA MADARIKATUA

Oraindik gogoratzen dut 1956. urtean Elizondora (bizi nintzen herria) lan egitera joan nintzenean nire laguna Antonio Irazozekin (nik Toni deitzen nuela). Ni, Martin Elizalde, altua nintzen baina ez nintzen oso indartsua. Gaztaina koloreko ile motza nuen, oso argia nintzen eta beti alai egoten saiatzen nintzen. Toni oso altua eta indartsua zen, ile beltza eta motza zuen, oso borondate onekoa zen. Bera eta bere ingurukoak ongi egoteko ahal zuena egiten zuen. Lehen esan bezala, Toni eta biok elkarrekin lan egitera joaten ginen eta infernuko errotan lan egiten genuen. Goiz euritsu batean errotara ailegatu ginenean, erreka oso indartsu joaten zen eta dena mugitzen zen.

Toni errotan sartzen hasi zen, baina errotako lurra oso ustela zegoen eta erreka ura azpitik sartzen zenez oholen iltze batzuk ateratzen hasi ziren eta Toni errekan sartzen hasi zen.

- Toni! Ez sartu, oso arriskutsua da. Zerbait apurtu ahal da, iltzeak ateratzen hasi dira - esan nion kezka aurpegiarekin.

- Martin, ez da ezer apurtuko eta gainera lan egin behar dugu, bestela nola nahi duzu jateko izan - esan zidan oso seguru.

Eta sartu zenean, krak!! Ohol baten iltzea apurtu zen. Lehenengo hanka bat ikusi nuen errotaren azpian, beraz, Toni erreka erori zen. Gainera, errotaren lurrarekin kolpe bat hartu zuen. Errekak Toni eramaten zuen eta ez zekienez igeri egiten ezin zen atera. Nik ere ez nekien igeri egiten, hala ere, bere bila joan nintzen.

- Toni, non zaude? Toni, non zaude?- oihukatzen nuen etsita.

Ez zidan erantzuten, beraz, lasterbide bat hartu nuen Toni zegoen lekura ziztu bizian iristeko eta erietxera edo nonbaitera laster eramateko. Korrika joaten nintzen gauzak saihesten baina talka egin nuen zuhaitz baten kontra. Kopetan eman nuen kolpea eta konortea galdu nuen. Laburbilduz, galduta nengoen eta ez nekien non zegoen Toni ezta non nengoen nik ere ez. Pare bat ordu zurbil egon ostean, pentsatzen geratu nintzen ea zer egin nezakeen Toni aurkitzeko. Orduan gogoratu nuen nire hildako aitak esaten zidana mendira joaten ginenean.

- Mendian galtzen bazara, erreka jarraitu behar duzu eta zalantzarik gabe herri batera ailegatuko zara.

Hasieran, hori egiteak beldurra ematen zidan. Baina gero, nire aitak esaten zidan berdina egin nuen. Herrira ailegatzeko gutxi falta zitzaidan eta orduan gauza arraro bat ikusi nuen erreka iskin batean. Zerbait mugitzen zen, baina ez zuen

inolako soinurik egiten. Ez nekien zer zen gauza arraro hori, beraz, zer zen begiratzera joaten hasi nintzen. Hurbiltzen nintzen heinean persona bat zela konturatu nintzen eta aurpegira begiratu nionean, Toni zela ikusi nuen!! Bizirik iraun zuen, baina sukarra asko zuen eta hiltzorian zegoela iruditzen zuen. Bi harriekin sua egin nuen eta gaua hotzik gabe pasa genuen. Goizean goiz Toni pixka bat hobe zegoen, baina ezin zen altxatu. Arratsaldean ailegatu zen eta gaizki jarri zen berriro. Argi zegoen Tonik sukar eta katarro handi bat hartu zuela eta ia ezin zuela hitzik esan. Hala ere, zerbait esan nahi zidan.

- Martin, zu oso lagun ona zara eta joan behar zara, zuk nik baino hobe dakizulako hil egingo naizela- esan zidan ez tulik egin gabe.

- Zer? Zu hilko zarela? Toni, ez esan tontakeririk mesedez - erantzun nion haserre.

Gau hartan Toniri katarroa pasatu zitzaion, baino eskuak izoztuak zituen eta honen ondorioz hatz bat more-more jarri zitzaion. Hurrengo egunean, zorionez, ehiztari batzuk aurkitu gintuzten eta Elizondoko erietxera eraman gintuzten. Kotxean, Tonik ezin zuen hatza mugitu eta eskua ia ere ez.

Erietxera ailegatu ginenean, pare bat solairu igo behar izan genituen. Ordu erdi bat egon ginen itxaroten norbait etorri arte. Azkenean, mediku jator bat etorri zen. Toniren eskua ikusi bezain laster, denborarik galdu gabe, beste gela batera eraman zuen. Geroago konturatu nintzen ebakuntza gelara eraman zutela. Niri, berriz, aurrean zeuden bainugela batzuetara sartu ninduten arropa aldatzeko zeren nirea oso bustita zegoen. Toni ebakuntza gelatik atera zenean, triste zegoen. Nire ondoan jarri zen.

- Gela bitxi horretan sartu naute eta hatz morea moztu behar izan didate izoztuta zegoelako.

Oso harrিতuta utzi ninduen eta ez nekien zer esan, horregatik isilik geratu nintzen. Argi zegoen infernuko errotan ez genuela gehiago lan egingo. Baina, non egingo genuen lan?

Toni eta biok horren inguruan hitz egiten egon ginen. Bi egun pasa eta gero, azkenean seguru geunden eta bion artean 100 behientzako ikuilu bat egingo genuen. Orain, gure ikuilua bukatuta dago eta Olaguen bizi eta lan egiten dugu.

ZARPAIL